

**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2021eko otsailaren 24an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**“2021EAN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK
ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK HERRIKO ELKARTEEI BANATZEKO
ETA ORDIAITZEKO PROPOSAMENAREN ONARPENA.**

Oiartzungo Udalak ematen dituen dirulaguntzak arautzeko Ordenantza 2018ko azaroaren 30eko GAOean argitaratu zen eta biharamunean sartu zen indarrean. Aipatu Ordenantzaren xedatutakoaren arabera, ohiko kultur ekitaldiak laguntzeko programa, Kulturaren dinamizazioa izeneko 4. lerro estrategikoan barneratu zen Oiartzungo 2019-2021eko Plan Estrategikoan.

Halaber, Udal Osoko Bilkurak 2020ko azaroaren 25ean onartu zituen 2021ean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak banatzeko oinarriak eta eskaerak egiteko emandako epean, 2021ko urtarrilaren 1etik 31era, 19 eskaera aurkeztu dira. Kultura Zerbitzuko arduradunak eskaerak aztertu eta puntuatu ondoren, 2021an aipatu dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena aurkeztu du.

2021ko otsailaren 19an Kultura Batzordeak aldeko diktamena eman dio proposamenari

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA: 2021an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeke dirulaguntzak herriko elkarteei banatzeko eta ordaintzeko proposamena onartzea, honela:

	EKINTZA	PUNTUAK	ESKATUTAKO LAGUNTZA	ONARTUTAKO LAGUNTZA
1	Olari: Euskal jaia	50	3.540,00	2.182,30
2	Organozaleak	86	3.000,00	3.000,00
3	Oidultz dultzaina	49	2.760,00	2.138,65
4	Ibargain Musika Eskola	71	4.404,00	3.098,87
5	Aia	63	2.011,00	2.011,00
6	Ugaldetxo KT: Pailazoak	91	3.974,00	3.971,79
7	Munanier: Garagardo	93	3.000,00	3.000,00
8	Hitzen Lihoa	72	8.900,00	3.142,51
9	Olentzero Laguntzaileak	67	3.165,00	2.924,28
10	Metrokoadroka: Gezi beltzak	59	1.200,00	1.200,00
11	Metrokoadroka: 21 aulki	59	2.400,00	2.400,00
12	Azmarrin: Hitzaldiak	51	2.700,00	2.225,95

13	Azmarrin: Oiartzun filosofikoa	64	2.350,00	2.3580,00
14	Bizardia: Solasaldi Musikatuak	73	3.740,00	3.186,16
15	Etixerat Elkartea: Bertso saioa	65	2.450,00	2.450,00
16	Raketistak	47	500,00	500,00
17	La Ilusion: Gure arbasoak	34	500,00	500,00
18	Bertso Elkola: Mitxelena omen.	51	1.918,50	1.918,50
19	Labore: Arto zuriketa	40	1.050,00	1.050,00
	GUZTIRA		53.562,50	43.250,00

BIGARRENA: Dirulaguntzak ordaintzeko 43.250 €ko gastua onartzea, 2021 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2021 diru-atalaren kontura (A-263/2021).

HIRUGARRENA: Oinarrietan xedatutakoaren arabera, lehen ordainketa, %80ari dagokiona, egitea; hau da, 34.600 € ordaintzea.

Gainontzeko %20a (8.650,00 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordainduko da.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera, Oiartzunen, sinaduraren egunean.